

FORU DEKRETUA

Kultura eta Kirol Saila
Kirol Zerbitzua
Espdt. Zbk...: 1168-2026

Onespena ematea Arabako etorkizun handiko kirolariak izendatzeko oinarri arautzaileei eta 2026ko deialdiari.

Autonomia Erkidego Osorako Erakundeek eta bertako Lurralde Historikoetako Foruzko Jardute Erakundeek arteko harremanei buruzko azaroaren 25eko 27/1983 Legeak 7.b) 6. artikuluan ezartzen du lurralde historikoei dagokiela erakunde komunek kirola sustatzeko, eskola kiroleko eta guztiontzako kiroleko programen arloan emandako arauak garatu eta betearaztea.

Era berean, Euskadiko Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren martxoaren 30eko 2/2023 Legeak 2.3 x) artikuluan adierazten duenez, euskal botere publikoek, beren eskumenen esparruan, jarduera fisikoa eta kirola egiteko eskubidea benetan gauzatzeko politika bat ezarriko dute, goi mailako kirola antolatu eta sustatzearen bidez, kirol federazioen parte hartzearekin.

Halaber bermatuko dute, aipatutako Euskadiko Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Legearen 23.2 artikuluan arabera, emakumeek jarduera fisikoa eta kirola egiteko aukera, bizitzako etapa guztietara zuzendutako eta maila guztietako programa espezifikoa garatuz. Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bategina onartzen duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuaren 3.5 artikulua araututakoaren ildotik, EAEko botere publikoek genero ikuspegia txertatu behar dute beren politika eta ekintza guztietan, haietan guztietan ezar dadin desberdinkeria ezabatzeko eta emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzeko helburu orokorra.

Azkenik, aipatutako Euskadiko Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Legearen 4.f artikulua ezartzen du ezen lurralde historikoetako foru organoei dagokiela, bakoitzak bere lurralde eremuan, goi mailako kirolari iristeko aukerak dituzten etorkizun handiko kirolari laguntza teknikoa eta ekonomikoa ematea, eta 95.2 artikuluan, berriz, ezartzen da etorkizun handiko kirolaritzat hartuko direla Autonomia Erkidegoko Administrazio orokorrean kirol arloko eskumena duen sailak onetsitako goi mailako kirolarien zerrendan egon gabe ere, maila horretara iristeko oinarri diren espektatibak dituzten kirolariak.

Horri dagokionez, Arabako Lurralde Historikoko Dirulaguntzei buruzko urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauaren 8. artikulua dirulaguntzak eman aurretik laguntzak emateko oinarri arautzaileak onetsi beharko direla jasotzen du, eta 16. artikulua Gobernu Kontseiluari esleitzen dio dirulaguntzak onesteko eskumena, Arabako Foru Aldundiaren, foru erakunde autonomoen eta foru partzuergoen eremuan.

Arabako Foru Aldundiak, Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren martxoaren 30eko 2/2023 Legeak gaituta, azken urteotan beste araudi bat garatu du etorkizun handiko kirolari izendatzeko irizpideak arautzeko. Hala ere, irizpide horiek etengabe eguneratu behar dira, kirol jardueraren etengabeko izaera



dinamikoagatik eta gainerako foru organoekin eta Eusko Jaurlaritzarekin oinarri komunak ezartzeko beharagatik. Horregatik, beharrezkotzat jotzen da xedapen hau onestea eta aurreko urteetako xedapenak indargabetzea.

Beraz, proiektaturiko foru dekretuaren xedea da Arabako etorkizun handiko kirolariak izendatzeko oinarri arautzaileak ezartzea eta 2026ko deialdia egitea, izendapenak 2027an ondorioak izan ditzan, Arabako Foru Aldundiak, Kirolaraba Fundazioak edo beste edozein erakunde publikok edo pribatuk haien aplikazio praktikoa hobetzeko talde horrentzat garatzen dituzten laguntza planetan parte hartu ahal izateko.

Dekretu hau izapidetzeko, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean jasotako arauketa onaren printzipioei jarraitu zaie, zeinak Xedapen Orokorrek egiteko Prozedura onesten duen otsailaren 28ko 6/2023 Foru Dekretuaren 3. artikuluan jaso baitira.

Horrela, behar bezala justifikatu da onetsi behar dela, eta, gainera, arau aldaketa proportzionala da, lortu nahi den helburua lortzeko ezinbestekoa den gutxienez mugatzen baita: Arabako etorkizun handiko kirolariak izendatzea.

Halaber, segurtasun juridikoaren printzipioa bermatzen da, nahikoa justifikatuta gelditzen delako ordenamendu juridikoan sartzen dela eta hura ematen duen organoa gaituta dagoela.

Gardentasun printzipioari dagokionez, bermatuta geratzen da, justifikatu baita ez egitea aldez aurreko kontsulta publikoko izapidea, eta entzunaldiko eta jendaurrean jartzeko izapideak egin baitira. Halaber, proposatutako proiektua onetsi ondoren, ALHAOn argitaratuko da, denek horren berri izan dezaten.

Efizientzia printzipioari gagozkiola, proposatutako arautze horrek, duen izaera dela-eta, ez dakarkie herritarrei ez administrazio karga osagarririk ez premia gabekorik, ez baliabide publikoen kontsumo handiagorik aplikatzeko.

Azkenik, arau jarduera hori sinpletasunaren eta ulergarritasunaren printzipioen eta kontuak ematearen mende dago.

Horregatik, nahitaezko txostenak aztertuta, Kultura eta Kirol Saileko foru diputatuak proposatuta eta Foru Gobernu Kontseiluak gaur bertan egindako bileran gaia aztertu ondoren, hauxe

XEDATZEN DUT

Lehenengoa.- Onespena ematea Arabako etorkizun handiko kirolariak izendatzeko oinarri arautzaileei, foru dekretu honi erantsitako dokumentuen arabera.

Bigarrena.- Onespena ematea Arabako etorkizun handiko kirolariak izendatzeko 2026ko deialdiari, 2027ko urtarilaren 1etik abenduaren 31ra arteko ondorioekin, xehetasun hauen arabera:

Eskaerak aurkezteko epea eta lekua:

- 1.- Eskaerak aurkezteko epea 2026ko urriaren 5etik 23ra bitartekoa izango da, biak barne.
- 2.- Eskaerak foru dekretu honen I. eranskinaren 3. artikuluan jasotako moduetatik edozeinetan egin ahal izango dira. Artikulu horretan jasotakoaren arabera, aurkezpen telematikoak egoitza



elektronikoan eskuragarri dagoen izapide espezifikoaren bidez egin beharko dira (<https://egoitza.araba.eus/eu/-/arabako-etorkizun-handiko-kirolariak-izendatzeko-deialdia>).

Era berean, telematikoki aurkeztera behartuta ez daudenek eskaera inprimakia deskargatu ahal izango dute izapide espezifiko horretan.

Betekizunak:

- 1.- Euskadiko Kirol Federazioen urtarilaren 31ko 16/2006 Dekretuaren eranskinean (indarrean dagoen idazketan) jasotako kirol modalitate eta diziplinetako Euskadiko kirol federazioen batek emandako indarreko lizentzia bat izatea.
- 2.- 2025eko urriaren 1az geroztik Arabako Lurralde Historikoko udalerriren batean edo Trebiñuko enklabean erroldatuta egotea modu jarraituan.
- 3.- Foru dekretu honen II. eranskinean adierazitako kirol merezimenduren bat lortu izana. Izendapen honetarako kontuan hartuko diren kirol merezimenduak 2025eko urriaren 1etik 2026ko irailaren 30era bitartean eta aurreko 1. apartatuan adierazitako federazio lizentziarekin lortuak izan behar dira.
- 4.- 2003. eta 2011. urteen artean jaio izana.

Aurrekoa gorabehera, 2012. urtean eta ondorengoetan jaiotako pertsonak ere izan daitezke aitortzaren onuradun, betiere honako baldintza hauek betetzen badituzte:

- a) 2025eko urriaren 1etik 2026ko irailaren 30era bitartean lortu izana foru dekretu honen II. eranskinean adierazitako kirol merezimenduren bat.
- b) Adina dela-eta dagokiona baino goragoko kategoria batean lortu izana kirol merezimendua.
- c) Diziplina olinpikoan merezimendua lortu izana.
- d) Dagokion Arabako kirol federazioaren aldeko txostena izatea.
- e) Arabako Foru Aldundiaren baimena izatea federazio lizentzia lortzeko.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Bakarra.- Indargabetuta geratzen dira foru dekretu honetan xedatutakoaren aurkakoak diren maila bereko edo beheragoko xedapen guztiak, eta, bereziki, Arabako etorkizun handiko kirolariak izendatzeko oinarri arautzaileak onesten dituen Gobernu Kontseiluaren irailaren 30eko 34/2025 Foru Dekretua.

AZKEN XEDAPENAK

Lehenengoa. - Kirol arloan eskumena daukan Arabako Foru Aldundiko saileko titularrari ahalmena ematea foru dekretu hau garatu eta gauzatzeko beharrezkoak diren xedapenak eman ditzan.



Bigarrenen.- Foru dekretu hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

I. ERANSKINA

ARABAKO ETORKIZUN HANDIKO KIROLARIAK IZENDATZEKO OINARRI ARAUTZAILEAK

1. artikulua.- Xedea, helburua eta dirulaguntza emateko prozedura.

Oinarri hauen xedea da Arabako etorkizun handiko kirolariak norgehiagoka bidez izendatzeko prozedura arautzea.

Etorkizun handiko kirolariaren aitortzaren helburua da Arabako Foru Aldundiak, Kirolaraba Fundazioak edo beste edozein erakunde publikok edo pribatuk kolektibo horrentzat garatzen dituzten laguntza planetan sartzeko aukera ematea.

2. artikulua.- Onuradunak.

1. Honako baldintza hauek betetzen dituzten hautagaiak izan daitezke Arabako etorkizun handiko kirolariaren aitortzaren onuradun:

- a) Urtero argitaratzen den deialdian ezartzen den indarreko lizentzia dutela egiaztatzea.
- b) Urtero argitaratzen den deialdian ezartzen diren urteetako batean jaioa izatea.
- c) II. eranskinean adierazitako kirol merezimenduren bat lortu izana ezarritako epean.
- d) Arabako lurralde historikoko edozein udalerritan edo Trebiñuko enklabean erroldatuta egon izana, etenik gabe, urtero argitaratzen den deialdian ezartzen den aldian.

2. Ezin izango dira etorkizun handiko kirolarien izendapenaren onuradun izan honako egoeraren batean dauden pertsonak:

- a) Administrazio bidean zehapen irmoa izatea, dopin arloko arau hausteagatik.
- b) Zehapen irmoa izatea, kirol diziplinaren arloan arau hauste oso larria egiteagatik.
- c) Baztertze egoera hauetakoren batean egotea:
 - Oinarri hauen ondoriozko betebeharrak ez betetzea, ez eta eskaeraren deialdiaren aurreko etorkizun handiko kirolariak izendatzeko deialditik eratorritako betebeharrak ere.
 - Arabako Lurralde Historikoaren Dirulaguntzei buruzko urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauaren IV. tituluan aipatzen diren arau hausteengatik zehapena jaso izana, edo sexu diskriminazioagatik, zehapenean ezarritako aldian, Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testuategina onartzen duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintza Dekretuak eta Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Eragingarriko martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoak xedatzen duten bezala.



- 2025eko urriaren 1etik 2026ko irailaren 30era bitartean dekretu honen II. eranskineko lehen apartatuko kirol-merezimenduren bat lortu duten kirolariak, baldin eta merezimendu hori modalitate, diziiplina edo proba zehatzaren kategoria absolutuari badagokio.
- Goi-mailako edo errendimendu handiko kirolari deklaratuak.

3. artikulua.- Eskaerak aurkeztea.

1.- Honako hauek aurkez dezakete eskaera:

- a) Arabako kirol federazioek edo federazio horiei egotz dakizkiekeen funtzio publiko eskuordetuak betetzen dituzten Arabako beste erakunde batzuek.
- b) Sozietatearen egoitza Araban duten kirol klubek edo elkarteek.
- c) 2. artikuluan ezarritako baldintzak betetzen dituzten kirolariak.
- d) 2. artikuluan ezarritako baldintzak betetzen dituzten kirolari adingabeen gurasoek edo legezko ordezkariak.

2.- Kirol klubek, elkarteek edo federazioek telematikoki aurkeztu beharko dituzte eskaerak, egoitza elektronikoan eskuragarri dagoen berariazko izapidearen bidez. Horretarako, aldez aurretik, entitate eskatzaileek Arabako Foru Aldundiak onartutako ziurtagiri elektronikoren bat eduki beharko dute. Argibide gehiago, hemen: <https://egoitza.araba.eus/eu/egoitza-elektronikoa/ezagutu-egoitza/nola-sartu>. Hori guztia Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean ezarritakoa alde batera utzi gabe.

3.- Etorkizun handiko kirolariak edo adin txikiko kirolarien gurasoek edo legezko ordezkariak kirol arloan eskumena duen saileko titularri zuzendutako eskaerak aurkeztu ahal izango dituzte, modu hauetakoren batean:

- a) Telematikoki, egoitza elektronikoan eskuragarri dagoen berariazko izapidearen bidez. Horretarako, aurrez, eskatzaileek Arabako Foru Aldundiak onartutako ziurtagiri elektronikoren bat eduki beharko dute. Argibide gehiago, hemen: <https://egoitza.araba.eus/eu/egoitza-elektronikoa/ezagutu-egoitza/nola-sartu>.
- b) Aurrez aurre, erregistro hauetako batean:
 - Arabako Foru Aldundiaren Erregistro Orokorra.
 - Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legeak 16.4 artikuluan jasotako gainerako erregistroetako batean.

4.- Urtero onetsiko da etorkizun handiko kirolariak izendatzeko deialdia, eta izapide elektroniko espezifikora sartzeko modua jasoko du.

5.- Eskaerak osorik bete ezean edo deialdian eskatutako agiriren bat falta izanez gero, erakunde edo pertsona interesdunari eskatuko zaio falta diren datuak eta nahitaezko agiriak aurkezteko hamar egun baliaduneko epean. Era berean, jakinaraziko zaio, horrela egin ezean, eskaerari uko egin diola ulertuko dela, eta, beraz, eskaera artxibatu egingo dela, kasuan kasuko ebazpena eman ondoren. Nolanahi ere, kirol arloan eskumena duen sailak beharrezkotzat jotzen duen informazio osagarri guztia eskatu ahal izango du aurkeztutako eskaerak behar bezala ulertu eta ebaluatzeko.

4. artikulua.- Aurkeztu beharreko dokumentazioa.



1.- Hona hemen aurkeztu beharreko dokumentazioa:

a) Eskaera orria, III. eranskinean onetsitako ereduaren arabera (ez da beharrezkoa telematikoki aurkezten bada).

b) Dagokion euskal federazioaren ziurtagiria, IV. eranskinean onetsitako ereduaren arabera, kirolariaren administrazio datuak eta heldu den lehiaketa maila jasotzen dituen. Dokumentazio hori zigilatuta egongo da, eta aipatutako federazioaren arduradunaren izena eta sinadura izango ditu. Kirol merezimendua taldeko diziplina batean autonomien arabera Espainiako txapelketa bat lortzearen bidez egiaztatzen bada, finalaren akta ere erantsi beharko da, bertan parte hartu dela frogatzeko.

c) Dagokion euskal federazioaren indarreko federazio lizentzia.

2.- Eskatzaileak uko egiten badio Kirol Zuzendaritzak ofizioz egiaztatzeari adin txikiko kirolariaren nortasun datuak (NAN) eta errolda datuak, aurreko apartatuan adierazitako dokumentazioaz gain, errolda ziurtagiria eta NANA ere aurkeztu beharko ditu.

3.- II. eranskinaren 3. apartatuan adierazitako kirol merezimenduen kasuan, kirolariak parte hartu duela egiaztatzen duen finalaren akta aurkeztu beharko da.

5. artikulua.- Etorkizun handiko kirolari izendatzeko prozedura.

1.- Aurkeztutako proposamenak balioespen batzorde batek ebaluatuko ditu. Batzorde hori honako pertsona hauek edo haien ordezkariak osatuko dute:

- Kirol zuzendaria
- Kirol Zerbitzuaren burua
- Kirol Zerbitzuko teknikari bat
- Idazkaria: Kultura eta Kiroleko Idazkaritza Teknikoko teknikari bat, hitza izango duena baina botorik ez.

2.- Balioespen batzordeak beharrezkotzat jotzen dituen laguntzaile eta aholkulari espezializatuak izendatu ahal izango ditu eta haien laguntza eskatu, eta haiek agintzen zaizkien eginkizunak betetzera mugatuko dira. Pertsona horiek erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu beharko dute eta honako hauek adierazi: ez daudela Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 24. artikuluan jasotako abstentzio arrazoiak eraginpean, konfidentzialtasuna bermatuko dutela, emandako dokumentazioa ez dutela erabiliko oinarri hauetan eta dagokion deialdian ezarritako irizpideen arabera eskaerak baloratzeari bestelako helburu baterako, eta ebazpen proposamena egin ondoren espedienteetako dokumentu guztiak suntsitu edo prozeduraren instrukzio organoari itzuliko dizkiotela, baldin eta jatorrizkoak badira. Izendapenak kirol arloan eskumena duen foru sailaren titularrak emandako ebazpenaren bidez onetsiko dira. Ebazpen hori ALHAOn argitaratuko da, interesa duen edonork errekusatzeko eskubidea baliatu ahal izan dezan, lege ezarritako egoera eta baldintzetan.

3.- Aurkeztutako informazioa aztertu ondoren, balioespen batzordeak etorkizun handiko kirolariak izendatzeko proposamena egingo du, II. eranskinean deskribatutako edozein kirol merezimenduen egiaztapena oinarri hartuta.

6. artikulua.- Ebazpena.



1.- Kirol arloan eskumena duen saileko titularrak etorkizun handiko kirolarien behin betiko zerrenda onetsiko du, eta ALHAOn argitaratuko da.

2.- Prozeduraren ebazpena emateko eta jakinarazteko gehieneko epea hiru hilabetekoa izango da, eskaerak aurkezteko epea amaitu ondorengo egunetik zenbatzen hasita.

7. artikulua.- Izendapenaren balio aldia

Etorkizun handiko kirolari izendatzeak urteko deialdi bakoitzean ezartzen diren ondorioak izango ditu.

Hala ere, kirol arloko sail eskumendunaren titularrak izendapena errebokatu ahal izango du honako kasu hauetan:

- Kirolariak bere gain hartutako betebeharrak betetzen ez direnean.
- Izendapenaren indarraldian etorkizun handiko kirolariaren mailako kirol jarduerari uzten zaionean.
- Izendapenak irauten duen bitartean, EAEko klub batean egoteari uzten zaionean eta/edo euskal federazio lizentzia beste autonomia erkidego bati eskualdatzen zaionean.
- Kirolaria goi-mailako edo errendimendu handiko kirolari izendatua izatea.

8. artikulua.- Etorkizun handiko kirolari izendatutako pertsonentzako onurak.

Etorkizun handiko kirolari izendatutako pertsonak Arabako Foru Aldundiak edo Kirolaraba Fundazioak kolektibo horrentzat garatzen dituzten laguntza planetan parte hartu ahal izango dute, bai eta beste edozein erakunde publikok edo pribatuk garatutakoetan ere, kasu bakoitzean ezartzen diren baldintzetan eta moduan.

9. artikulua.- Etorkizun handiko kirolarien betebeharrak

1.- Arabako Foru Aldundiarengandik etorkizun handiko kirolariaren aitortza jaso duten pertsonak honako konpromiso hauek hartuko dituzte, izendapenak irauten duen bitartean:

- Baimentzea Arabako Foru Aldundiak kirolariaren irudia erabiltzea, inolako ordainsaririk jasotzeko eskubiderik gabe, aldundiaren bitarteko digital eta grafikoetan jartzeko, etorkizun handiko kirolari izendatzaera eraman duen kirol jarduerarekin zuzenean lotutako egoeretan.
- Arabako Foru Aldundiak antolatutako sustapen jardueretara joatea, bertaratzea eskatzen zaionean.
- Arabako Foru Aldundiari bere kirol ibilbideari buruz eskatutako informazio guztia ematea eta errendimenduko kirolerako gaitasunak hobetzea ahalbidetzen duten jarduera programatuetan parte hartzea.

2.- Artikulu honetan ezarritako betebeharrak betetzen ez badira, etorkizun handiko kirolari izaera galduko da ondorio guztietarako.

II. ERANSKINA

KIROL MEREZIMENDUAK

1.- Nazioartean parte hartzea (banakako, taldekako eta ekipokako probak).

a) Titulu ofiziala lortzeko nazioarteko lehiaketan parte hartzea, parte hartze hori aldez aurreko sailkapenari lotuta badago. Aurrez, baldintza hauek bete behar dira:

- Proba nazioarteko federazio baten, Europako federazio baten edo nazioarteko liga profesional baten egutegi ofizialean sartuta egotea.
- Estatuko selekzio bat ordezkatzeari edo Euskadiko selekzioa.
- Euskadi ordezkatzeari munduko edo Europako txapelketa batean.
- Gutxienez 5 herrialdek parte hartzea.

b) Surf modalitatean: World Surf Leaguek antolatutako lehiaketak baino ez dira kontuan hartuko.

1. World Junior Championship-ean parte hartzea.
2. Challenger Serieetan parte hartzeko sailkatzea.
3. Challenger Serieetan (Wild Card) gonbidatuz gero, lehenengo 4 postuen artean geratzea.
4. 6.000 puntu edo gehiagoko Qualifying Serieen (QS) lehiaketetan parte hartzea.

c) Pilota: Nazioarteko Euskal Pilota Federazioak (NEPF) antolatutako lehiaketak baino ez dira kontuan hartuko.

d) Hipika modalitatean: oztopo-jauzien diziplinan, NJLO (Nazioarteko Jauzi Lehiaketa Ofiziala) lehiaketetan lortutako kirol-merezimenduak baino ez dira zenbatuko.

2.- Espainiako Txapelketako emaitzak (banakako eta taldeko probak).

a) Proba olinpikoak edo paralinpikoak: Espainiako Txapelketan 1., 2. edo 3. postua lortzea.

b) Olinpikoak edo paralinpikoak ez diren probak: Espainiako Txapelketan 1. edo 2. postua lortzea.

c) Espainiako errekor absolutua ontzea.

Apartatu honetan jasotako jardueretan etorkizun handiko kirolari izendatzeko, gainera, honako arau hauek hartuko dira kontuan:

- Banakako emaitzak baloratuko dira; ekipoen lortutako postuak ez dira baliozkoak izango.
- Ez dira kontuan hartuko autonomien, klubaren edo ekipoen araberrako Espainiako txapelketak.



- Kirol kategoriaren sailkapen ofiziala soilik hartuko da kontuan (kadeteak, gazteak, etab.). Adinaren edo jaiotza urtearen arabera barne sailkapenak egiten diren txapelketetan, titulu ofizial bat lortzeko sailkapen ofiziala baino ez da kontuan hartuko.
- Gimnastika erritmikoaren modalitatean, lehen kategorian lortutako emaitzak baino ez dira kontuan hartuko banakako edo taldeko probetan (ez dira kontuan hartuko taldeek edo klubek egindako Espainiako Txapelketaren emaitzak).

3.- Espainiako Txapelketako emaitzak (ekipokako probak).

Lehenengo postua lortu izana autonomien arabera Espainiako Txapelketan eta finalean parte hartu izana.

4.- Bertako kiroleko diziplinetako emaitzak.

- a) Euskal pilota: profesional aurreko kontratua izatea.
- b) Arrauna (banku finkoa):
 - Espainiako batelen eta trainerillen txapelketan 1. postua lortzea.
 - Traineruen maila goreneko ligan 1. postua lortzea, estropaden % 50ean arraunean ibili ostean.

5.- Ohar Orokorrak.

- a) Kirol-modalitateak eta/edo -diziplinak aitortuta egon behar du Eusko Jaurlaritzaren modalitate eta diziplinen katalogoan (urtarrilaren 31ko 16/2006 Dekretuaren I. eranskina).
- b) Espainiako txapelketan, emaitza kontuan hartzeko, gutxieneko parte-hartzea egon behar da (8 parte-hartzaile, talde edo ekipo).

6.- Definizioak.

- a) "Proba olinpikoak edo paralinpikoak" dira Joko Olinpikoen edo Paralinpikoen hurrengo edizioan sartuko direnak.
- b) "Banakako probak" dira lehiaketa batean pertsona bakar batek parte hartzen duen probak.
- c) "Taldeko probak" dira kirolariek aldi berean edo txandaka parte hartzen duten probak.
- d) Talde kiroleko "ekipoko probak" dira kirolarien arteko lankidetzeta eta aurkakotasun egoerak gertatzen direnean, elementu mugikor baten bidez etengabe elkarri eraginez.



Arabako Foru
Aldundia
Diputación
Foral de Álava
www.araba.eus

Etorkizun oparoko kirolariak. Eskabidea.

Anexo III eranskina

Deportistas promesa. Solicitud.

Kultura eta Kirol Saila
Departamento de Cultura y Deporte

Kirol Zebitzua
Servicio de Deporte

ESKATZAILEA (nagusia bada kirolaria. Adin txikikoa bada aita, ama edo legezko tutorea) ■ SOLICITANTE (en caso de ser mayor de edad el deportista. En caso de ser menor de edad el padre, la madre o persona con tutoría legal)

Identifikazio agiria ■ Documento identificativo

☐ NAN DNI	☐ AIZ NIE	☐ Besteren bat Otro
-------------------------------------	-------------------------------------	---

Identifikazio zk. ■ N° identificativo

Sexua ■ Sexo

☐ Emakumea Mujer	☐ Gizona Hombre
--	---

Izena ■ Nombre

Lehen abizena ■ Primer apellido

Bigarren abizena ■ Segundo apellido

Helbidea (kalea) ■ Domicilio (calle)

Zk. ■
Núm.

Letra

Eskra. ■
Escal.

Solairua ■
Piso

Aldea ■
Mano

Herrialdea ■ País

Probintzia ■ Provincia

Udalerrria ■ Municipio

Herria ■ Localidad

P.K. ■ C.P.

Posta elektronikoa ■ Correo electrónico

Telefona ■ Teléfono

Mugikorra ■ Móvil

Ikastetxea ■ Centro Educativo

Ikastetxearen herria
Localidad del centro educativo

JAKINARAZPENETARAKO HELBIDEA ■ DOMICILIO A EFECTOS DE NOTIFICACIÓN POSTAL ⁽²⁾

(Ez da bete behar eskatzailearen datuekin bat egiten badute ■ No rellenar si coincide con los datos de la persona solicitante)

Helbidea (kalea) ■ Domicilio (calle)

Zk. ■
Núm.

Letra

Eskra. ■
Escal.

Solairua ■
Piso

Aldea ■
Mano

Herrialdea ■ País

Probintzia ■ Provincia

Udalerrria ■ Municipio

Herria ■ Localidad

P. K. ■ C.
P.

LEGEZKO ORDEZKARIA ■ REPRESENTANTE LEGAL

(Ez da bete behar eskatzailearen datuekin bat egiten badute ■ No rellenar si coincide con los datos de la persona solicitante)

Identifikazio agiria ■ Documento identificativo

☐ NAN DNI	☐ AIZ NIE	☐ Besteren bat Otro
-------------------------------------	-------------------------------------	---

Identifikazio zk. ■ N° identificativo

Sexua ■ Sexo

☐ Emakumea Mujer	☐ Gizona Hombre
--	---

Izena ■ Nombre

Lehen abizena ■ Primer apellido

Bigarren abizena ■ Segundo apellido

Posta elektronikoa ■ Correo electrónico

Telefona ■ Teléfono

Mugikorra ■ Móvil



Arabako Foru
Aldundia
Diputación
Foral de Álava
www.araba.eus

Etorkizun oparoko kirolariak. Eskabidea.

Anexo III eranskina

Deportistas promesa. Solicitud.

Kultura eta Kirol Saila
Departamento de Cultura y Deporte

Kirol Zebitzua
Servicio de Deporte

KIROLARIA (soilik adin txikikoa bada) ■ DEPORTISTA (solo si en menor de edad)
(Pertsona juridikoentzat nahitaezkoa da ■ Obligatorio si la persona solicitante es menor de edad)

Identifikazio agiria ■ Documento identificativo

☐ NAN DNI	☐ AIZ NIE	☐ Besteren bat Otro
--	--	--

Identifikazio zk. ■ N° identificativo

Sexua ■ Sexo

☐ Emakumea Mujer	☐ Gizona Hombre
---	--

Izena ■ Nombre

Lehen abizena ■ Primer apellido

Bigarren abizena ■ Segundo apellido

Posta elektronikoa ■ Correo electrónico

Telefona ■ Teléfono

Mugikorra ■ Móvil

Ikastetxea ■ Centro Educativo

Ikastetxearen herria

Localidad del centro educativo

KIROLARIAREN ERROLDA DATUAK 2025eko urriaren 1etik aurrera ■ Datos de Padrón del Deportista a partir del 1 de octubre de 2025

Noiztik Desde	Noiz arte Hasta	Udalerrria Municipio	Probintzia Provincia



Arabako Foru
Aldundia
Diputación
Foral de Álava
www.araba.eus

Etorkizun oparoko kirolariak. Eskabidea.

Anexo III eranskina

Deportistas promesa. Solicitud.

Kultura eta Kirol Saila
Departamento de Cultura y Deporte

Kirol Zebitzua
Servicio de Deporte

PERTSONA INTERESDUNAREN ERANTZUKIZUN-ADIERAZPENA ■ DECLARACIÓN RESPONSABLE DE LA PERSONA INTERESADA

ADIERAZTEN DU

Aurkeztutako datuak egiazkoak dira eta horiek baieztatzeko behar diren egiaztagiri guztiak erraztuko ditu; gainera, eskabidea aztertzeke eskatzen zaion informazio osagarri guztia aurkezteko konpromisoa hartzen du.

2. artikuluan ezarritako baldintzak betetzen ditu.

DECLARA QUE

☐ Los datos presentados son ciertos y se compromete a facilitar las comprobaciones necesarias para verificar los mismos y a aportar toda la información complementaria que se le solicite con el fin de analizar su solicitud.

☐ Cumple con las condiciones establecidas en el artículo 2.

KIROL ZUZENDARITZAK OFIZIOZ EGIAZTATZEA ■ COMPROBACIÓN DE OFICIO POR PARTE DE LA DIRECCIÓN DE DEPORTE

Arabako Foru Aldundiko Kirol Zuzendaritzak ondorengo datuak eskatuko ditu. Ados ez bazaude, egiaztatzeko beharrezkoa den dokumentazioa aurkeztu beharko duzu:

- a) Kirolaria adin txikikoa bada, nortasun datuak (NANa).
- b) Errolda datuak.

Arabako Foru Aldundiko Kirol Zuzendaritzak administrazio eskudunaren aurrean adierazitako datuak ofizioz egiaztatzearen AURKA NAGO

La Dirección de Deporte de la Diputación Foral de Álava, solicitará los siguientes datos. En caso de oponerse deberá entregar la documentación necesaria para su comprobación:

- a) Datos de identidad de la persona deportista si es menor de edad (DNI).
- b) Datos de padrón.

☐ ME OPONGO a que la dirección de deporte de la Diputación Foral de Álava compruebe de oficio los datos de identidad de la persona beneficiaria ante la administración competente.



Arabako Foru
Aldundia
Diputación
Foral de Álava

www.araba.eus

Etorkizun oparoko kirolariak. Eskabidea.

Anexo III eranskina

Deportistas promesa. Solicitud.

Kultura eta Kirol Saila
Departamento de Cultura y Deporte

Kirol Zebitzua
Servicio de Deporte

DATUAK BABESTEKO OINARRIZKO ARGIBIDEA ■ INFORMACIÓN BÁSICA SOBRE PROTECCIÓN DE DATOS

Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamenduan (DBEO) ezarritakoa betetzeko, jakinarazten dizugu ematen dizkiguzun datuak Arabako Foru Aldundiak tratatuko dituela eta “T-38. Kirolariak” tratamenduetan erantsiko direla, helburu honekin: kirolaren arloko bekak eta dirulaguntzak ematea.

Eskatzaileei jakinarazten zaie deialdi honen esparruan emandako datu pertsonalak, bereziki izen-abizenak, NAN/IFZ, ikastetxea, ikastetxearen herria eta erreferentziako urtean egiaztatutako kirol-merezimenduak edo -emaitzak, Eusko Jaurlaritzari jakinaraziko zaizkiola, lagapen hori beharrezkoa denean deialdi honen xede diren laguntzak kudeatzeko, koordinatzeko, kontrolatzeko, jarraipena egiteko edo justifikatzeko, bai eta administrazio publikoei esleitutako legezko betebeharrak betetzeko ere.

Datu horiek isilpekoak dira eta horixe bermatzen dugu, ez baitzaizkie jakinaraziko hirugarrenei, salbu eta legez baimentzen diren kasuetan.

Aukeran izango duzu datuetan sartu, haiek zuzendu, ezereztu, haien aurka egin eta tratamendua mugatzeko eskubideak erabiltzea, zeinak DBEOk aitortzen baititu, eta, horretarako, Egoitza Elektronikoz baliatu ahalko zara www.araba.eus atarian edo Arabako Foru Aldundiaren Erregistroaren bulegora jo ahalko duzu (Probintzia plaza, 5, 01001 PK, Gasteiz –Araba).

Argibide gehiago:
<https://web.araba.eus/eu/pribatutasun-politika>

Con objeto de dar cumplimiento a lo establecido en el Reglamento (UE) 2016/679 del Parlamento Europeo y del Consejo de 27 de abril de 2016 (RGPD), le informamos que los datos que usted nos facilita van a ser tratados por la Diputación Foral de Álava y se van a incorporar en los tratamientos de “T38. Deportistas” para la finalidad de: concesión de subvenciones relacionadas con actividades y entidades deportivas.

Se informa a las personas solicitantes de que los datos personales aportados en el marco de la presente convocatoria, en particular nombre y apellidos, DNI/NIF, centro educativo, localidad del centro educativo y méritos o resultados deportivos acreditados durante el año de referencia, serán comunicados al Gobierno Vasco cuando dicha cesión resulte necesaria para la gestión, coordinación, control, seguimiento o justificación de las ayudas objeto de esta convocatoria, así como para el cumplimiento de las obligaciones legales atribuidas a las Administraciones Públicas.

Garantizamos la confidencialidad de sus datos, no siendo comunicados a terceras personas fuera de los supuestos habilitados legalmente.

Usted podrá ejercitar sus derechos de acceso, rectificación, supresión, oposición y limitación que reconoce el RGPD a través de la Sede Electrónica en www.araba.eus, o dirigiéndose a la Oficina de Registro de la Diputación Foral de Álava, Plaza de la Provincia, 5, CP 01001 Vitoria - Gasteiz (Álava).

Para más información:
<https://web.araba.eus/es/politica-de-privacidad>



Arabako Foru
Aldundia
Diputación
Foral de Álava

www.araba.eus

Etorkizun oparoko kirolariak. Eskabidea.

Anexo III eranskina

Deportistas promesa. Solicitud.

Kultura eta Kirol Saila
Departamento de Cultura y Deporte

Kirol Zebitzua
Servicio de Deporte

BERARIAZKO ADOSTASUNA ■ CONSENTIMIENTO EXPRESO

ONARTZEN DU berariaz etorkizun oparoko kirolari izendatua izatea, oinarri arautzaileak onartzea eta deialdiari buruzko datu pertsonalak tratatzea.

☐

CONSIENTE de forma expresa su designación como deportista promesa, la aceptación las bases reguladoras y el tratamiento de sus datos de carácter personal con relación a la convocatoria.

.....
(**Lekua eta data ■ Lugar y fecha**)

Sinadura ■ Firma



Arabako Foru
Aldundia
Diputación
Foral de Álava
www.araba.eus

Etorkizun oparoko kirolariak. Federazioaren ziurtagiria.

Anexo IV eranskina

Deportistas promesa. Certificado de la federación.

Kultura eta Kirol Saila
Departamento de Cultura y Deporte

Kirol Zebitzua
Servicio de Deporte

FEDERACIÓN VASCA DE

EUSKAL FEDERAZIOA

ZIURTATZEN DU ■ CERTIFICA

Izen-abizenak Nombre y apellidos		Sexua ■ Sexo G-H ■ E-M	
Kirol modalitatea Modalidad deportiva		NAN DNI	

1.- Nazioarteko parte hartzea (banakako, multzoko edo taldeko probak) ■ Participación Internacional (pruebas individuales, conjunto o equipo)

Noiz Fecha	Non Lugar	Leihaketaren izena Competición	Postua Puesto	Maila gorena da Es categoría absoluta	☐ Bai/Sí ☐ Ez/No
☐	Proba egutegi ofizialean dago ■ La prueba está en el calendario oficial				
☐	Estatuko edo Euskadiko selekzioko ordezkari gisa parte hartu du ■ Ha participado en representación de la selección estatal o Euskadi				
☐	Proban 5 herrialde edo gehiagok parte hartzen zuten ■ En la prueba participaban 5 o más países				

2.a/2.b- Emaizak Espainiako txapelketetan (banakako edo multzoko probak) ■ Resultados Campeonatos de España (pruebas individuales/conjunto)

Noiz Fecha	Non Lugar	Leihaketaren izena Competición	Postua Puesto
☐	Gimnastika erritmikoa lehenengo maila ■ Gimnasia Rítmica primera categoría		
☐	Probak, gutxienez, 8 parte hartzaile zituen ■ En la prueba había, al menos, 8 participantes		

2.c- Espainiako errekor absolutua gainditu (banakako edo multzoko probak) ■ Batir record de España absoluto (pruebas individuales o de conjunto)

Noiz Fecha	Non Lugar	Leihaketaren izena Competición	Marka Marca

3.- Espainiako txapelketan emaitzak (taldeko probak) ■ Resultados en Campeonatos de España (pruebas de equipo)

Noiz Fecha	Non Lugar	Leihaketaren izena Competición	Postua Puesto
☐	Probak, gutxienez, 8 parte hartzaile zituen ■ En la prueba había, al menos, 8 participantes		

4.a.- Pilota ■ Pelota

Pilotan kontratu aurre profesionala Contrato preprofesional en pelota	☐
--	--------------------------

4.b.- Banku finkoko arrauna ■ Remo en banco fijo

Espainiako txapeldun batela edo trainerillan Campeón/Campeona en batel o trainerilla	☐
Maila goreneko ligako txapelduna Campeón/Campeona en liga de máxima categoría	☐

EUSKAL FEDERAZIOAREN ZIGILUA
SELLO DE LA FEDERACIÓN VASCA